



LIBURUA

'Poltergeist' eta 'Rambo' artean



EREIN

ARGIANTZA PELLO LIZARRALDE

EREIN, 2020

IBAI ATUTXA ORDEÑANA

Poltergeist estreinatu ondoren, baina Rambo pantaila handietara iritsi baino lehenago, jubilatzeaz dagoen zinema-areto batzuen gerenteak road trip-ik mundutarrena abiatu du iraileko bero-sapa jasanezinean. Horratx, *Argiantza*, Pello Lizarralderen azken eleberria, Ereinek argitaratu duena, idazlearen argitaletxe kutunak. Makro-narrazioz gabeko mundutartasunaren izaera mikroskopiko horretan, hala ere, oso argi izendatu ezin dudana zerbaitek (zerbait deserosoak) lotu nau eleberrira hasi eta bukatu arte.

Gerenteak dio: "Nahita ere ezin izango dut ahaztu egiten ari naizen honen ondotik zerbait galduko dugula, nahiz eta ez dakidan oso garbi zer galduko dudana nik". Bada, iruditzen zait esal-

di horrek laburbiltzen duela, nolabait, eleberrira harrapatu nauen zera hori. Nola esan, iruditu zait, gerentearen adierazpenak kokatu nauela *Poltergeist* eta *Rambo*-ren artean.

Poltergeist-en bezala, galduta dagoela ez dakigun zerbaiten ehorzketaren testigu egiten gaitu eleberriak eta, bizkitartean, espektro eta mamuen zain utzi. *Rambo*-ren gisako soluzio testosteroniko bazookadun muskulatu hipermasikulinoaren iragarpenak, jarraian, gure mamuekin zer egin ez dakigula pentsatzen utzi nau. Eta hori guztia road-trip-ik mundutarrenean.

Egin, egiten dute bere lekua eleberrian zehar gaur egunera iritsi zaizkigun espektroetako batzuek: RRV izendapena baino lehenagoko Zarama; 78ko kons-

tituzioaren ondorengo, baina PSOEek lehenengoz irabazi baino lehenagoko Espainiako Estatuak; *googlemaps* eta *tomtom*-ak baino lehenagoko kotxe bidaiak; bideoa baino lehenagoko zinema; GAL baino lehenagoko ETA. Alta, zerbait galtzen ari bada, ez dakigu oso ondo zer. Hori bai, badakigu ari garela zerbait galtzen, horren testigu egiten baikaitu eleberriak.

Gure *Poltergeist*-i *Rambo*-rik bidali baino lehenagoko tarte horretan, nostalgiarik gabe begiratzen dio iragan hurbilari Lizarraldek. Ezin esan estetika narkotikoa dela *Argiantzak* ematen diguna. Edozer dela ere galdu genuena, merezi du galdetzeak zer ari garen galtzen orain, edo zer daukagun galtzeko bihar. ●